



BEÑAT MUGURUZA
ASEGINOLAZA
 IRAKASLEA ETA
 IKERTZAILEA

Bat, txikia eta librea

Carme Junyent hizkuntzalari katalana hil zen pasa den irailean. Hizkuntza-politikari buruz esaten zituenak arretaz segitu ditugu hemen, haren proposamen batzuk noizbait gurean aplikatzera ausartuko ginelako itxaropenez-edo, beharbada. Aho-bizarrik gabe jarduten zuen. Aldizkari honetan adibide mordoa jaso da: hiru aldiz elkarrizketatu du ARGIAk azken hamar urteotan. Azkenekorako, 2020an, LARRUN monografiakoa eskaini zioten, oso-osorik.


Ez da bidezkoa haren obra oparora liburu bakarrera ekartzea, baina 2021ean Junyentek apailatutako lan bati buruz hitz egin nahi dut hemen: *Som dones, som lingüistes, som moltes i diem prou*. Elkartu zituen 70 hizkuntzalari katalan-hiztun, emakumezkoak, eta hizkera inklusiboarekiko jarrera kritikoa azaltzen zutenak. Katalana gainetik baino ez dut ezagutzen: gaztetan ikastaro bat fakultatean, *procésari* esker egindako intentsiboa, ondoren... Ez dakit hizkera inklusiboarekin zer mugimendu dagoen hiztun-komunitate horretan, eta kosta egiten zait hain itogarria dela irudikatzea, 70 emakumezko hizkuntzalari katalan-hiztun horri buruz idazten jartzeraino. Eta ez edonola: *prou* diote, aski.

Harriduraz bizi dut, kostatzen zaidalako irudikatzea emakumezko 70 autore

euskaldun hizkera inklusiboa ezbaian jarriz. Baina inbidia puntu batez ere bizi dut, zer nahi duzue esatea, liburuiko sarrera irakurri hutsarekin, Junyentek berak idatzia. Nik neuk ez dut gaia horrela bizi, baina nahi nituzke ikuspuntu horiek ere euskaraz irakurri, euskaldunek idatzita. Tamaina kontua ere izango da, beste gauza asko bezala. Gu milioi bat eskas gara, haiek hamar bat milioi. Baina hainbeste axola al du tamainak?

Susmoa dut euskaltzale askok ez luketela halako ikuspeirik aditu nahiko euskaraz. Izan ere, euskara omen da gure territorio libre bakarra. Bat, txikia eta librea. Bestela esanda, fatxarik ez duen hizketa garbia. “Fatxa” hori izugarri modu zabalean ulertuta, noski. Tamalez, edo ez, euskararen hedapenerako muga izan litekeen horixe, agian, euskarak bizirauteko indargune ere bada, gotortzeko bide. Gutxi batzuentzat asoziazio horrek egin dezake euskara erakargarri, batzuek balio jakin batzuekin lotzen duten neurrian, nahiz beste askorentzat kode hori desererosoa edo arrotza izango den.

ARGIAk liburu koral horri buruz elkarrizketatu ahal izan aurretik utzi gaitu Junyentek, eta konformatu beharko dugu orain artekoekin, eta baita han-hemen utzi dizkigun gainerako argitalpen guztiekin ere. Ez da gutxi. ●



EVA PEREZ-PONS
ANDRADE

Erresistentzia

Herri mugimenduen barna eta ekintza politikoa, gure hiztegiaren parte egin dugu *erresistentzia* kontzeptua. Erresistentzia egiten diogu patriarkatuari, kapitalismoari, kolonialismoari, inperialismoari eta abar luze bati. Hitzean sakonduz gero, pertsona, talde edo mugimendu bakoitzak bere definizio propioa duela ikus daiteke.

Oro har, esango nuke erresistentzia asko lotzen dela eustearekin edo aguantatzearekin. Erresistentzia pasiboaren eta aktiboaren arteko bereizketa egin izan dugu noizbait, lehenengoari bigarrenari baino kategoria “bakezaleagoa” ezarri nahian. Formak alde batera utzi-

ta, *erresistentzia* eta *pasibotasuna* antonimoak direla esatera ausartuko nintzateke; erresistentzia baldin badago, kontra egite bat dago, eta hori ekintza bat da, taldean aurrera eramanez gero, ondo koordinatu beharrekoa. Horrez gain, erresistentziak inplizituki dakar eraikuntza. Sistema hegemoniko bati aurre egin diogulako, hau da, horren kontra zerbait eraiki dugulako, dator normalean hegemoniatik biolentzia den erantzun bat, hegemoniak bere normaltasunaren baitan eragiten duen biolentzia sistematikotik bereizten dena zigor forman. Biolentzia horri eusten diogu akaso. ●